

# Z(I)UREKIN

## Zer da?

Ettxera bideko egoera zail edo ezerosoetan laguntza, aholku, jarraibide, segurtasun edo eta konpainia hutsa eskainiko dizun linea bat.

## Nola funtzionatuko du?

Aplikazio bat izango da guztiaren oinarria, telefonoak piztean une oro blokeo pantailan egongo den aplikazio bat. Jakinarazpena klikatzean, pasahitzik eskatu gabe sartuko da zuzenean eta bertan irekiko da aurrez deskargatuta egon beharko duen sistema. Horretarako, aurre konfiguratu beharko da, eta konfigurazio horretan xehetasun batzuekin osatutako informazio bat eman beharko da gerora aplikazioak beteko dituen funtzionamendu guztiak bermatzeko.

## Zein informazio eskatuko ditu erregistroak eta aurre konfigurazioak?

- Izen-abizen ofizialak.
- Jaioterri eta herrialdea + helbidea.
- Telefono zenbakia.
- NAN zenbakia.
- Une oro mugikorraren kokapena adieraziko duen funtzioa.
- Argazki bat.
- Segurtasuneko beste telefono bat.

\*Informazio hau eskuratzeko gaitasuna eta eskubidea zerbitzuko langileek soilik edukiko dute.

## Zein funtzio edukiko ditu?

- Aplikaziora sartu eta botoi gorri handi bat, zuzenean linearekin konektatu eta langile batekin harremanetan jartzeko.
- Aholku zerrenda bat nahi denean kontsultatzeko.
- Egoera berdinean zure eremutik gertu dauden pertsonen berri emango duen zerbitzu bat, elkartu eta bidea eramangarriago bihurtzeko.
- Egoera larrietan, poliziarekin konektatuko den sistema bat, zuzenean kokapena, izena eta egoera adieraziko dituena.
- Inguruan ditugun ezagunei eta arrez aukeratutako kontaktuei, gure egoeraren berri emango dien sistema bat, askotan alboan egoten baita laguntzarik onena eta eraginkorrena.
- Gerora, eman diren dei, informazio edo eta elkarteen informazioa gordeko dituen datu-base bat, zerbait gertatuko balitz inbestigazio zein erreakzio azkarrenak errazteko.

### **Zein da honen helburua?**

- Erabiltzaile posibleen eskaerak eta premiak betetzea.
  - Segurtasun bultzada gizartean.
- Gero eta erabiltzaile gutxiago edukitzea.
  - Paradoxa bada ere, hau da gure helburua, ongizaterako proiektu bat izanik, asmoa arazo bat konpontzea baita. Gizartean oso hedatuta dagoen beldur bati aurre egiteko modua da, bortxaketak, bahiketak edo lapurretak ekiditerako bidean, baina azken pausua, kontzientziazioa lortu eta halako aplikazioak behar ez izatea da.
- Bizikidetzaren proiektuaren hedapena handitzea.
  - Hedapena handituz, hobetutako pertsona eta egoera kopurua ere haztea.
  - Kontzientziazio prozesu batean laguntzea.
- Ongizate sozial eta ziurtasun sentrazio orokor baten zabalkundea.
  - 'Flotagailuarekin ikasten da igeri egiten'. Hau ez da betiko konponbide bat, argi daukagu konponbiderako pausu bat edo tresna bat baino ez dela.